

LAN EGINDAKO ORDUEN ERREGISTROA

2018ko otsailean, lanaldi partzialeko kontratuetan lan egindako orduak erregistratzeko derrigortasuna jakinarazi genizuen gutun baten bidez. **2019ko maiatzaren 12tik aurrera, derrigortasun hori lanaldi osoko kontratuei ere aplikatuko zaie.**

Martxoaren 8ko 8/2019 Errege Lege-Dekretuak (lanaldian babes sozialeko eta lan-ezegenkortasunaren aurkako premiazko neurriei buruzkoa) langile guztien lanaldiaren erregistroa ezartzen du 10. artikuluan. Dekretuak Langileen Estatutuko 34. artikulua aldatu eta honako atal hau gehitu du:

“9. Enpresak langile guztien eguneroko lanaldia erregistratzea bermatu behar du, eta adierazi beharko du lanaldia zehazki zer ordutan hasi eta amaitu den, artikulua honetan ezarritako ordutegiaren malgutasunean inongo eraginik gabe.

Negoiazio kolektibo edo enpresa-akordio bidez edo enpresariaren erabakiz (betiere aurretik langileen enpresako legezko ordezkariari kontsulta eginda) antolatuko eta dokumentatuko da lanaldiaren erregistro hori.

Agindu honek aipatzen dituen erregistro horiek lau urtez gordeko ditu enpresak, eta langileen, haien legezko ordezkarien eta laneko eta gizarte-segurantzako ikuskatzaileen eskura egongo dira.

Laburbilduz, **lanean emandako orduen eguneroko erregistroa egiteko sistema bat izan beharko dute lantoki guztiek.** Lanaldiaren hasiera- eta amaiera-ordua, egindako aparteko orduen kopurua, eta, lanaldi partzialeko kasuetan, ordu arruntak eta osagarriak adierazi beharko dira. Langileak egunero sinatu beharko du erregistroa. Eta enpresan lau urtez gorde beharko da.

Orduen erregistroak eskuragarri egon beharko du laneko ikuskapen bat baldin badago.

Zalantzarik izanez gero, jar zaitezte gurekin harremanetan.

Gasteizen, 2019ko apirilaren 26ean
Zenbat SL aholkularitza
Lan-aholkularitza saila